

Esther Cruz

«Nire eskalada txapelketei garrantzia kentzen saiatzen da jendea ama naizenetik»

Zilborrestetik zintzilik doa horman gora.

UXUE ALBERDI

Argazkiak: Dani Blanco

Zer esanahi dute zuretzat diziplinak eta sakrifizioak?

Niretzat kirolak sakrifizioarekin lotura handia izan du, batez ere, haurrak izan ditudanetik. Atsedenerako dudan denbora apurra ematen diot kirolari. Sakrifiziorik eta diziplinarik gabe ez nuen entrenatzen jarraituko, eta gainerako amen erritmora egokituko nintzen. Sakrifizioarekin bakarrik lortu dut entrenatzen jarraitzea, gustatzen zaidana egiten jarraitzea.

Zure buruari helburu jakinak jartzeak lagundu egiten dizu entrenatzeko?

Bai, bestela oso zaila egiten zait. Orain ez daukat oso argi txapelketena, ez dakit lehia-tzen jarraituko dudana, baina oraingo nire helburua asteburutan eskalatzera joaten garenerako sasoiaren egotea da. Helburuak behar ditut, handiak edo txikiak. Bestela etsi egingo nuke. Helburuak aldatuz doaz, baina zerbait heldu behar diozu. Konstantzia handia eskaltzen duen kirola da eskalada, astebete eskaltu gabe igaro eta gorputz osoa minbera jartzen zaizu. Oso kirol esklaboa da.

Zer eman dizute zuri txapelketek? Lehiak?

Lehiatzen hasi nintzenean asko harritu nuen nire burua. Gaztetan oso lotsatia nintzen, eta era guztietako konplexuak neuzkan. Adin txarra zen. Txapelketetan erabat eraldatzen nintzela ohartu nintzen. Hormari begira jarri eta munduan bakarrik banengo bezala zen, inork ez ninduen ikusten, desagertzea bezala zen. Beste kirol batzuetan asko behatzen nindutela sentitzen nuen. Korrika, adibidez, deseroso sentiarazten ninduen alboetan jendea ikusteak, edo aurretik eta atzetik korrika-

lari gehiago neuzkala ikusteak. Eskaladan ez, zu zara, zu eta paretak. Eta, gainera, errekonozimendua jasotzen nuen, ondo eskalatzeko hutsagatik hitz politak entzuten nituen. Onartua sentitzen nintzen. Eskalatu ondoren inork ez zidan esaten txikiegia edo argalegia nintzenik, ondo eskalatu gero errekonozitua sentitzen nintzen, eta nire beste ezaugarriak ez zitzaizkion inori axola.

Zer da egunero entrenatzeko indarra ematen dizuna?

Batetik, seme-alabak. Gustatzen zait hurrek ikustea lanaz gain beste afizio batzuk, beste bizipoz batzuk ere baditugula. Jakin dezaten gurasoak ere pertsonak garela, eta gure ilusioak ditugula. Beste guraso batzuk ikusi eta etsi egin dutela iruditzen zait, beren burua utzi dutela: “Orain haurrak ditugu eta hau tokatzen da” entzuten diet; ez dira bizipoza ematen zieten gauzei heltzen saiatu. “Hau da egin behar dena” diote, eta parkera joaten ikusten ditut, halako tristura batekin. Pozik egingo

Nortasun agiria

Esther Cruz Murtzian jaio zen 1976an, baina Euskal Herrian bizi da 21 urte zituenetik. Gaur egun Zumaia du bizitoki. Eskalatzaila da. Gorputz Heziketako Magisteritza ikasi zuen eta goi mailako kirolari emana egon da beti. Hiru umeren ama da: Enekok 9 urte ditu, Haizeak 4 eta Lurrek 6 hilabete. Goi mailako kirola eta amatasuna uztartu ditu.





balute! Baina askok euren burua utzi dute. Gure hurrek pertsonak garela ikustea nahi dugu, baditugula gure betebeharrez gain, gure funtzioez gain, beste afizio batzuk, bizi estilo bat. Haurrak eskolatuta egon diren bitartean egunero eskalatzen nuen, eta orain, txikia jaio denetik, astean hiru aldiz joaten saiatzen naiz. Ahal dudanean egiten dut, Lur da lehentasuna, eta ahal dudanean eskaladari tarte bat eskaintzen diot.

Zure senarra (David Carretero) ere eskalatzaila da. Nola uztartzen dituzue eskalada, lana eta familia?

Senarra nahi baino gutxiago ikusten dute hurrek, beste aldea tokatu baitzaio. Isilpeko ituna egin genuen. Haurrak txikiak ziren bitartean nik zainduko nituela erabaki genuen, eta berak etxetik kanpo lan egingo zuela. Baina gure asmoa egunen batean papearak trukatzera da. Haurrak koxkortzen direnean, hainbeste behar ez nautenean, nik etxetik kanpo lana topatuko dut eta etxeaz eta hurrez senarra arduratuko da. Hala, Davidek ere bere afizioei eta hurrei denbora gehiago eskaini ahal izango die. Hori bai, asteburuak bostok elkarrekin egoteko dira; mendira joaten gara eskalatzera edo hondartzara surfa egitera, denok batera.

Azkenaldian boulderrean aritu zara, batez ere.

Orain ari gara pixkanaka sokara itzultzen. Boulderrarena umeekin egon ahal izateko irtenbidea zen. Enekorri boulderrean hasi zitzaion eskaladaren harra sartzen. Bere kol-

txonetatxoa du boulderrak, eta gehien gustatzen zaiena pixka bat igo eta koltxonetara salto egitea da. Gainera, sokarik behar ez izatera, bat eskalatzen egon arren bestea erabat libre dago umeekin egoteko. Soka lotuagoa da. Biak lotzen gaitu.

Zer aldatu zen zure bizitzan ama izatea erabaki zenuenean?

Gaztea nintzen arren urte asko neramatzen kirolari erabat emanda. Gaztetxotan ez nuen nire lekua inon aurkitzen eta kirolarekin obsesionatu nintzen. Behin haurrak izan eta gero erabat aldatu zitzaidan bizi ikuspegia. Lehen eskalatzeko bakarrik bizi nintzen. Baina, bat-batean, haurrak izan nituen, eta nire bizitzan lehenengo aldiz erabat betetzen ninduen zer-bait egiten ari nintzela sentitu nuen. Ama izan nintzenean ez nuen eskaladaren beharrik aseta sentitzeko, ez nion eskaladari lehen eskatzen nion guztia eskatzen, asko eskatzen bainion, gehiegi. Eskalada, txapelketak... beste era batera hartzen hasi nintzen, begirada aldatu zitzaidan. Ama izan aurretik, ez irabaztea traumatikoa zen niretzat. Gauzak erlatibizatzen irakatsi zidan amatasunak. Guraso izateak aldatu egiten gaitu, batez ere, emakumeak. Gizonak libreago dira, kirolean nabarmena da. Eliteko aita kirolari gehienentzat kirola da lehentasuna, ehuneko ehun ematen diote, eta denbora librean egoten dira seme-alabekin. Eliteko amek ezin dute. Lehen ordu pila bat entrentzen nuen, baina Eneko jaio ostean askoz ere gutxiago eta, gainera, haurrarekin joaten nintzen entrentzera. Baina denbora gutxiagoan

etekin handiagoa ateratzen ikasi nuen. Ahalegina errentagarri egiten erakutsi dit amatasunak. Ni asko aldatu nau. Orain ez daukat nire buruari ezer demostratu beharrik, ez dut nire izatearen karga guztia eskaladaren gainean jartzzen. Lehen hil ala bizikoa zen niretzat.

Eta eskalada hil ala bizikoa izanda, ez zenuen ama izateko beldurrik?

Ba, bitxia da, baina ez. Nik uste, barrubarruan banekiela eskalada bizi nuen modua ez zela sana. Nekatzen ari nintzen, agortzen. Aseta nengoen, gainezka egiteko zorian. Betezzen ninduen tarteka, baina oso sentimendu iragankorra zen, ez zen zoriontasun egonkorra eskaladak ematen zidana. Irabazten nuen eta une horretan poza sentitzen nuen, baina segituan joaten zen sentsazio hori, eta berriro ere entrenatzeari ekin behar nion hurrengo txapelketa irabazteko. Gainera, gero diruarekin obsesionatu nintzen. Hemen ez nuen lanik topatzen, eta etxearen pisu ekonomiko guztia Daviden gain zegoen. Ez nintzen ondo sentitzen horrela, eta ordain ekonomikoa ere eskaladari eskatzen hasi nintzen. Oso zirkulu arriskutsuan nengoela konturatu nintzen, eta hortik ateratzeko beharra sentitu nuen. Beste zerbait behar nuen. Eta senarrari ere antzeko zerbait gertatu zitzaion: biok bizi izan genuen bizitza oso azkar, azkarrégi. 15 urterekin kanpora joaten zen eskalatzera, 16rekin munduko txapelketa irabazi zuen... 23 urterekin elkartu ginenean etapa batzuk bizituta geneuzkan, eta beste etapa batzuk bizitzeko gogoia genuen biok.

24 urte eta eskalatzeko beka bat zenituen, baina kendu egin zizuten haurdun geratu zinenean.

Ez zidaten berri. Emakunderen esku-hartzeari esker haurdunaldiak lesioen baldintza beretan onartzea lortu zen. Hau da, haurdunaldiagatik lehiatu ezin zuten emakumeei azken txapelketetako emaitzak hartzen zitzaizkien kontuan. Eta niri, azken emaitzen arabera, beka berritza zegokidan, baina ez zidaten berri. Paper gainean eskubide hori bagenuen arren, ez zen bete. Agian, neurea izan zen akatsa, gehiago borrokatu behar nuen, baina oso nekagarria da beti eskean aritzea. Beste era batera atera nuen borrokatzeko indarra. Nire buruari erronka jarri nion: erakutsiko diet dirurik eman ez arren eta ama naizen arren lehiatzeko gai naizela, baita irabazteko gai ere.

Haurdunaldiaren ordeztu lesio larriren bat izan bazenu beka berrituko zizuten?

Jakina, baita errekuperatzen hiru aldiz gehiago kostako balitzait ere. Gainera, lesionatuta bal-

din bazaude exijitu egiten dizute zaintzea eta sasoiaren egotea, baina haurdunok ahaztu egiten gaituzte. Gure kabuz atera behar dugu sasoiaren mantentzeko motibazioa, eta barizeengatik hankak altxatuta edo oinak ur balde batean sartuta egon beharrean, jaiki eta gimnasia joaten gara ahal duguna egitera, ahalik eta sasoi onenean egoteko. Haurdunaldia ez da gaixotasuna bat, jakina mugatzen zaituela, baina muga horien barruan gauza asko egin daitezke. Baina hau ez da sartzen jende askoren buruan. Haurdun gelditzea norberak erabakitzen duenez, denek uste dute amek ez dutela ama izateaz gain beste ezer egiteko gogorik, asmorik eta gaitasunik izango. “Beranduago izan zenitzakeen” esaten dizute, baina kirolariak izateaz gain emakumeak gara, pertsona libreak, eta libre gara ama noiz izan nahi dugun aukeratzeko. Kirolari profesional askori kontratua debekatzen zaie haurdun geratzea, eta asko izan dira taldeak kanporatu dituztenak haurdun gelditzeagatik. Askok.

Ama izan ondoren lehiatzera itzuli zinenean jende asko harritu zen?

Aurreneko haurrarekin agian bai. Norbaitentzat erreferente izan bada asko pozten naiz. Uste dut beldurra kentzeko balio izan diela batzuei: askok uste zuten ama izanez gero ezingo zutela eskalatu, ezingo zutela lehiatu. Guk kontrakoa erakutsi dugu. Hala ere, izan dira nik adina zorte izan ez duten emakumeak, ama izan eta eskalatzen jarraitu ezin izan dutenak. Seguruena, bikotearen babesa falta izan zaielako. Baldintza asko daude. Sakrifizio eta antolakuntza handia behar dira, eta bikotearen konplizitate gabe oso zaila da. Pazientzia behar da, eta lehenetsunak ondo markatuta izatea, gero frustrazioerik ez izateko. Hasieran gogorra egiten da, lehiaketetara ere haurra hartuta joan izan naiz ni. David lanean bazegoen Eneko hartuta joaten nintzen lehiatzera. Lehiaketa Malagan bazen, haurra hartu eta Malagaraino, eta besteak berotze-eraketak egiten ari ziren bitartean ni umearekin egoten nintzen aldagelan. Haiek hotelean atsedean hartzen zuten bitartean ere ni haurrarekin egoten nintzen.

Norbere zailtasunez gain, presio sozialak ere eragiten du? Ama izateko modu bat gailentzen da oraindik?

Baietz uste dut. Oraindik akordatu naiz txapelketa baten ondoren lagun batek esan zidana. Ez nintzela pozik geratu esan nion, ez zitzaidala nahi bezain ondo atera, eta “hobe”, esan zidan, “hala, umei eskaini ahal izango diezu denbora guztia”. Gizarteak behin eta

berriz jartzen dizu muturren aurrean ama batengandik espero dena zer den. Eta espero ez dena, jakina. Ama izan naizenetik nire eskalada txapelketei garrantzia kentzen saiatzen da jendea, lehentasuna zein den behin eta berriz gogorarazi behar balidate bezala. Ez dira ohar-tzen nik lehentasuna argi dudala, egun osoa ematen diedala seme-alabei, eta lehiatzeagatik ez naizela ama okerragoa. Eskalatu beharrean “benetako” lan bat izango banu, dirua emango lidakeena, inork ez lidake ezer esango. Baina ez da zilegi afizioz zerbait egitea. Nola dibertituko da, ba, hiru umeren ama?

Epaitua sentitu zara?

Bai, eta bi aldeetatik. Kirolean, ama izateagatik ehuneko ehuna ez ematea egozten zidaten, eta kirolek kanpo, ama txarra izatea, kirolaria izanik ez omen nielako seme-alabei ehuneko ehuna ematen. Beti egongo da gauza bategatik edo besteagatik epaituko zaituen jendea. Eta amak asko epaitzen gaituzte. Hasieran, txapelketetara haurrarekin joaten nintzenez denetik entzun nuen, baita podiumera semearekin igotzea ez zela profesionala ere. Hori bai, gizonezko kirolari bat, hilabetean seme-alabak ikusi gabe egon ondoren, podiumera bi umerekin igotzen bada, munduko aitarik jatorrena da. Edo kamiseta kendu eta lepotik zintzilik txupete bat erakusten badu aita eredugarria da, eta argazki hunkigarria eta polita aterako da egunkarietan. Nik uste, oraindik ez ditugula pentsamoldeak zabaldu, eta aita lehiatzen ikusten dugunean denok oso lasai geratzen garela “ama egongo da umea zaintzen” pentsatzen dugulako.

AZKEN HITZA

Lehentasunak

“Gizonengan ondo ikusia dago kirola lehentasuna izatea, baina nesken kasuan, beti dago aurretik jarri beharreko zerbait. Lehenengo ikasle ona izan behar duzu, gero langile ona, gero ama ona... eta kirola beti izango da bigarren mailako kontua. Ez digute uzten kirolari lehentasuna ematen. Ikasle ona ez den mutikoaren kasuan ‘ez da puntako ikaslea, baina begira ze kirolari ona den!’ esaten da oraindik, neska bati ez zaio barkatzen lehentasunetan irrist egitea. Sozialki bakoitzari gure lekua markatzen zaigu, eta hortik irtetekotan...”

Baina lehiatzen dagoena ama denean, badirudi umeak abandonatu egin dituela sentitzen dugula. Normaltasunaren barruan sartzen dena ez da epaitzen, baina nik egiten dudana berezia denez, badirudi mundu guztiak hartzen duela epaitzeko eskubidea. Azkenean horixe da epaitzen dena, artaldeari segi ez izana, bidetik atera izana. Era batera edo bestera bidetik atera denak badaki epaia zain egoten dela bide bazterrean.

Nola lor liteke amatasuna eta goi mailako kirola uztargarriagoak izatea?

Era guztietako laguntzekin. Esaterako, haurtzaindegira joan eta ez diezazutela esan eskalada ez dela ofizioa, ez dela lana, eta beraz ez duzula zure haurrak haurtzaindegian uzteko eskubiderik. Edo laguntza ekonomikoak eman, gutxienez, entrenatzen duzun bitartean umeekin pare bat orduz egon dadin norbait kontratatu ahal izateko. Oinarritzkoak dira laguntzak amatasuna eta eliteko kirola uztartu ahal izateko. Erreferenteak sortu behar dira, ezinbestekoak dira gauzak normalizatzen hasteko. Gu umeekin eskalatzera joaten hasi ginenean ez zegoen inor, eta materialik ere ez zegoen. Ez zegoen oraingo sehaska eta motxila ultra-arinik, ezta bi segundotan muntatzen den kanpin-dendarik ere. Orduan, mendira joatean, arrisku txikienik bazen, Eneko arnes batekin lotzen genuen. Lau-hankan ibiltzen zen poz-pozik, eta batera arriskurik gabe. Denetik entzun behar izan genuen: zakur bat bezala lotzen genuela, guraso txarrak ginela... eta haurra zoriontsu zen!

Zugan ama ikusten da eskalatzailea baino lehen eta Davidengan eskalatzailea aita baino lehen?

Gertatu izan zaigu David eta biok haurrekin eskalatzera joan, eta han gaudela beste gizonen bat agertzea Davidi “lasai, segurtatuko zaitut nik” esanaz. Hala ni libre egongo nintzen haurrak zaintzeko. Baina “ez, ez”, esaten genion, “lagundu nahi badiguzu triangelua egingo dugu, lehenengo bat eskalatzen, gero segurtatzen eta gero haurrak zaintzen, denok txandan-txandan”. Egiteko eta ardura desberdinak badaude, banatu ditzagun. Gu ikusi eta jende guztiak pentsatzen zuen nire senarra zela eskalatzailea eta ni umeak zaintzera etorri nintzela. Bekokian “ni ere eskalatzailea naiz” kartela jarrita joan behar izan dut ia, jendeak ama ikusten baitu eskalatzailea ikusi orde, edo biak ikusi orde. Ama beti ikusten da eskalatzailea baino gehiago. Gizonen kasuan alderantziz da, lehenengo ofizioa ikusten da, eta gero aitatasuna. ■

argia.com Cruzen bizipenak luze eta zabal jasotzen ditugu gure webgunean.